



ONDARROA



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Urrezko hondoan begi biko zubia eta erdialdean dorre bat ganerata. Dorrearen ezker aldean horma-konka, guztia kolore naturalan; eskoian lehoi gorri igarolaria. Dana uhin urdin eta zilarrezkoen ganean eta balea baltza gailendurik. Zilarrezko bordura inskripzio baltzagaz.

DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de oro, un puente de dos ojos sumado en su centro de una torre, a la siniestra de ésta una hornacina, todo ello de su color natural y a la diestra un león pasante de gules, sobre ondas de azur y plata, y brochante a estas una ballena de sable. Bordura de plata, con leyenda de sable.

AITAMEN HISTORIKOA

Bizkaiko uria. María Díaz de Haro Bizkaiko andreak sortu eban; 1327ko irailaren 28an emon eutsan uri-gutuna Lizarran. Uriari Berriatuako eleizateko lur sail batzuk emon eutsazan, eta, Bizkaiko ganerako uriei legez, honeri be Logroñoeko forua emon eutsan.

1473an Ondarroan sutea egon zan bando-gerren burruken ondorioz. Herritarrek uria guztiz suntsituta egoala, eta zergak kentzeko eskatu eutsien Enrique IV.ari, eta horrek baiezkoa emon eutsen; Errege Katolikoek berretsi egin eben erabakia.

XVII. mendearen hasieran hauteskunde orokorrak egin ziran Bizkaiko Jaurerriko erregimentu nagusiko kideak aukeratzeko, eta hauteskundeotan Ondarroa ganboatarren aldekoa zan.

Frantsesek Bizkaira sartu gura ebela Ondarroatik jakin eben, eta, hori dala eta, 1794ko abuztuaren 13an Ondarroarantz joan ziran Busturia, Xemein, Markina, Etxebarriako San Andres, Zenarruza, Ereño, Gerrikaiz, Nabarniz, Murelaga, Arbazegi, Amoroto eta Gizaburuagako konpainiak. Abuztuaren 28an Pinetek (herriaren ordezkariak) agindutako erasoan su emon eutsien Ondarroari, eta biharamunean, abuztuaren 29an, bota egin zituen frantsesak Ondarroatik. 1796ko Batzar Nagusietan frantsesen kontrako gerran jasan eben sutean izandako galerengaitik Ondarroak herritarrei zelanbaiteko laguntza emotea eskatu eban.

Bagilaren 10ean egin zan batzarrean Ondarroako herritarrak jaurerrian zituen betebeharrak guztietatik aske isteko erabakia hartu zan.

RESEÑA HISTÓRICA

Villa fundada por la señora de Bizkaia, María Díaz de Haro, que expidió la carta puebla el 28 de septiembre de 1327 en Estella. A la nueva villa se le concedían tierras de la anteiglesia de Berriatua y el derecho a regirse por el fuero de Logroño, como el resto de las villas del Señorío.

Por el año 1473 Ondarroa fue víctima de un incendio en el marco de las luchas banderizas. Sus habitantes solicitaron a Enrique IV la exención de parte de los impuestos ya que la villa se hallaba “yerma de todo punto”. La petición fue concedida y ratificada más tarde por los Reyes Católicos. A comienzos del s. XVII, en las elecciones generales del personal del regimiento general del Señorío de Bizkaia, Ondarroa votaba por la parcialidad gamboína.

Teniendo noticias de que los franceses desean entrar en Bizkaia por Ondarroa, el 13 de agosto de 1794 salen para Ondarroa las compañías de Busturia, Xemein, Markina, San Andrés de Etxebarria, Zenarruza, Ereño, Gerrikaitz, Nabarniz, Murelaga, Arbazegi, Amoroto y Gizaburuaga. El 28 de agosto de 1794, Ondarroa es incendiada en una incursión ordenada por el representante del pueblo, Pinet. Al día siguiente, 29 de agosto, se obliga a los franceses a desalojar Ondarroa. En las Juntas Generales de 1796 esta villa pidió que se le recompensasen las pérdidas sufridas por el incendio en la guerra contra los franceses.

En la junta del 10 de junio se decretó eximir a esta población de todo lo que debía de contribuir al Señorío.

